



AZTERTZEN

HAUR HEZKUNTZA

ekin eta ekin

# Gure herria

## Jardueraren garapena

1. Hasteko, haurrek muralean zer ikusten duten azalduko dute.

Muralak bi zati ditu.

Irakasleak erabakiko du zer ordenatan aztertzea komeni den; elkarren osagarri dira biak; beraz, bata bestearen ondotik aztertuz gero, are ikuspegi zabalagoa hartuko da.

Muralak hirigune handien hainbat alderdi islatzen du, zerbitzuei, lanbideei eta beste gai batzuei buruzko informazioa emateaz gain.

2. Bertan ageri diren gauzen zerrenda egitea proposatuko diegu (irakasleak arbelean idatzi edo marraztu ahal ditu).

3. Ondoren, zerrenda hori eurak bizi diren hiri edo herrian dau den gauzeekin erkatzea eskatu eta galdera orokorrak edo muralari buruzkoak egingo dizkiegu, esaterako:



- Gauza horiek guztiak daude zuen hiri edo herrian, ala falta da baten bat? Eta, badago ezer, zuen herri edo hirian dagoena eta muralean ageri ez dena?
- Joan daitezke bakarrik eskolara hiri horretako haurrak?, eta jolastera?, eta erosketak egitera?
- Pozik bizi ote dira biztanle gazteenak?, zergatik?
- Zer egin liteke muralako hiria politagoa eta guztien gustukoa izateko?
- Amaitzeko, hiri handietan izaten diren arazoetako batzuk aipatu-

## HELBURUAK

- Pertsonen bizimoduari begiratzea.
- Herri edo hiriko ingurumen arazoak eta horiek sortzen dituzten giza jarrerak ezagutzera.

## MATERIALA

- ◆ Gure herria unitate didaktikoaren murala.

ko ditugu, adibidez, hondakinak eta zarata:

- Muralako hiriko zer leku daude zikin? Zer egin liteke garbitzeko?
- Zer leku dira zaratsuak?, eta lasaiak?, zergatik? Zer egin liteke hirian horrenbesteko zaratarik ez egoteko?



Iturria:

MAIZTEGI IRIONDO, R. **Gure herria** // **Nuestro pueblo**. Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Haur Hezkuntza. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Gasteiz, 1998.